



Imprimatzeko bertsioa

Inprimatu 

BI HITZETAN » JOSE MARI ZEBERIO (MUNDUKO LANDAGUNEA ELKARTEKO IDAZKARIA)

## «Garapenak, benetazkoa eta guztiontzat izan dadin, elkartasunezkoa izan behar du»

Aitziber Iartza » Munduko Landaguneko III. Nazioarteko Biltzarra egingo dute Miramongo Teknologia Parkean urriaren 19 eta 20an, eta Arantzazun 21ean. Jose Mari Zeberio antolatzailearekin hitz egin dugu gaiaz.

### Munduko Landagunea Elkarreak III. biltzarra antolatu du. Zein helburu du?

Lehen kongresuan globalizazioak nekazaritza produktuen komertzioan duen eragina aztertu genuen. Bigarrean, globalizazioak familia nekazaritzan duen eragina. Oraingoan, premisa bat dugu: garapenak elkartasunezkoa izan behar du; dena merkatuaren esku uzten badugu, batzuk gero eta aberatsagoak izango dira, eta besteak gero eta pobregokoak. Elkartasun osagarri bat sartu behar diogu garapenari, benetazkoa eta guztiontzat izan dadin.

### Nola irudikatzen duzue elkartasun hori?

Garapena, askotan, bizimodu erosoago eta kontsumoko gaitasun bezala ulertzen dugu, baina bistan da hori garapenaren zati bat baino ez dela. Garapenak beste osagai batzuk ere baditu; giza eskubideak nola zaintzen diren, herrien eskubideak nola errespetatzen diren, kulturak nola babesten diren... Guk osagai horiek kongresu honetan kontuan hartzea nahi dugu. Elkartasuna ez da alde batetik besterakoa, denok dugu zerbait eskaintzeko eta zerbait jasotzeko.

### Elkarrea 1999an sortu zen, eta garai hartan globalizazioak landa eremuaren garapenarekin bateragarria izan behar duela zenioten. Lortu al da zerbait ildo honetan?

Globalizazioak ez baditu joko arau egokiak eta baliagarriak guztiontzat, aldeak areagotu egingo ditu. Globalizazioa geldiezina da, teknologien aurrerapenak eta izugarri errazten duelako, baina argi dago landa inguruetan batez ere izugarriko diferentziak sortzen dituela. Horregatik, indartsuak bere legeak ezartzen baditu eta txikiarengan eragin kaltegarriak baditu, norbaitek zerbait egin behar du hori orekatzeko eta gainditzeko. Lan gogorra da, ur korrontearen kontrakoa, baina merezi du.

### Sarea osatu duzue. Zein sare mota duzue?

Araozari muinetik heldu nahi diogu. Jende asko bizi da landaguneetan, munduko biztanleen ia erdia, eta garapenik ez badago, jendeak, azkenean, hirietara alde egiten du, paradisuaren bila. Bertan paradisuak aurkitzen ez duenean, hirian sortzen dira arazoak: fabelak, txabolak... Guk lortu nahi dugu jendeak nekazaritza bizitzeko aukera izatea. Tokian tokiko elkarreak ari dira horretan, eta guk elkarre horiek laguntzen ditugu, bai eskakizunetan eta baita proiektu zehatzetan ere.

### Zenbat bazkide dituzue?

90etik gora. Sarean hiru eratako kideak daude: batzuk bazkide formalak dira, beste batzuekin harreman sendoa dugu eta beste batzuekin gauza jakinetan elkarlanean ari gara. Kongresu honetara hiru motatako erakundeak etorriko dira. Afrikakoak, Asiakoak, Hego eta Ertameriketakoak eta Europa ekialdekoak.

### Presio talde bezala ere aritzeko asmoa duzue, baina ez dirudi lan erraza nazioartean presioa egitea.

Guk, hasieran, uste genuen erraza izango zela, baina oso zaila da, munduan errealitate asko daudelako eta oso zaila delako erakunde indartsu bat osatzea presioa egiteko. Apurka, gero eta gehiago gara, eta gure eragina handitzen joango da. Eragiteko ahalmena ez da mundua aldatzeko adinakoa izango, baina programa batzuk bideratzea lortzen badugu, gure ekarpena hor egongo da.

## Hainbat herrialdetako 70 aditu

Urriaren 19 eta 20an Miramongo Teknologia Parkean egingo dute Munduko Landaguneko III. Nazioarteko Batzarra. Txostengile asko egongo dira, eta mahai-inguruetan ere hainbat lagunek parte hartuko dute. Guztira, 30 herrialdetako 70 aditu elkartuko dira.

Donostian gai hauek landuko dituzte: landa eremuaren garapena munduan, landa eremuaren aukerak, elkartasunezko garapen esperientziak eta enpresek eta erakundeek garapenean duten funtzioa.

Hizlarien artean, Herberehetako ministro izandako Eveline Herfkens, Nazio Batuen Erakundeko Eve Crowley eta Burkina Fasoko eskualde batetako gobernadore Pauline Hein Winkoun daude.

Batzarrari buruzko informazioa [www.ruralforum.net](http://www.ruralforum.net) helbidean dago.

© Donostiako Hedabideak S.L.